



Sortzen



Zorionak! 12.000 saski inguru banatu eta 151.000€ bildu ditugu euskalgintzarako!

Errigoraren aurreikuspen guztiak erraz gainditu dira kanpaina honetan. 12.000 saski inguruko eskaria egon da, eta 151.000€ lortu dira Nafarroa hegoaldeko euskalgintzarako. 12.000 saski, alajaina! Erraz esaten da. Iaz 500 banaketa-gune izatetik, aurten Euskal Herriko lurralde guztietan zehar 700 banaketa-gune izatera heldu da Errigora. Guztira, ia 200 herri ingurutan egon da presente kanpaina, eta herri gehiagotara heltzen ari den heinean, emaitzak ere haziz doaz. Eskerrik asko, banaketa-guneetan zerrendak kudeatzen edo bestelako edozein lanetan

aritu zareten guzti-guztioi. Kanpaina honen arrakasta, zeuek jarritako ahalegin eta ilusioari esker izan da.

Komunikabideetan presentzia handia

Baina herri gehiagotara heldu eta banaketa-gune kopurua hazteaz gain, komunikabideek eskainitako espazioak ere, lagundu du istorio berriak ezagutarazi, eta emaitza bikain hauek lortzen. Inoiz baino handiagoa izan da kanpaina hau landu duten komunikabideen kopurua. Telebista, irrati zein prentsa izan; nazionalak ala tokian tokikoak, sekulako interesa eta laguntzeko

gogoia erakutsi dute. Zer litza-teke (gure herria), herrigintzan sinisten duen komunikabiderik gabe? Mila esker, zuei ere!

Aurten bikoiztu egin da Errigora hornitzen duten ekoizleen kopurua.

Ekoizle kopuru handiagoa

Kanpaina honetan, protagonismo berezia izan dute ekoizleek. Nafarroa hegoaldeko egoera bizipen errealetatik kontatzeko sortutako 3 dokumentaletik 2tan, Imanol eta Angel ekoizleak izan dira protagonistak. Baina, horrez gain, oso aipagarria izan da beste hainbat modutara ere ekoizleek erakutsi duten inplikazioa; komunikabide ezberdinetan elkarrizketak eginez, saskien muntaketan parte hartuz...

Baina aipagarriena da, aurten bikoiztu egin dela Errigora hornitzen duten ekoizleen kopurua. Saskien eskaera handia

izateak, ekoizle gehiagorengana zabaltzeko aukera ematen du. Zenbat eta eskaera handiagoa, orduan eta ekoizle kopuru handiagoa saskiak hornitzeko.

Bestalde, ekoizleak hautatzeko erabilitako irizpideak, ez ditugu aldatu: Enpresa txikiak, langileen baldintzak zaintzen dituztenak, tokian tokikoa lehenesten dutenak... eta nola ez, kalitate bikaineko produktuak eskaintzen dituztenak!

Animo ba, lana ondo egin izanaren harrotasunarekin, goza dezagun eskuartean ditugun produktuez, ondo merezia dugu eta!

Euskalgintzako zein egitasmotara bideratuko da dirua?

TERE

Tuterako Argia Ikastolako gurasoa



«Nafarroako Erriberan, ikastolak gara euskararen arnasmune. Baina arnasmune izan arren, itolarrian gaude. Errigorak ez du gure behar guztiak asetzeko adina ematen, baina oxigenoa ematen digu; nola eman gainera, euro bakoitza lortzeak esfortzu itzela exijitzen digunean.

Era berean, gure egoera ezagutarazteko plataforma eskaintzen digu, eta hori ere asko da. Errigora ekimenak gure lurreko nekazariak laguntzen ditu, haien produktuak saltzen dituelako eta haien produktuak ezagutarazten dituelako.»

ALIZIA

Erriberako AEK-ko kidea



«Errigora egitasmoarekin, euskararentzat estrategikoak diren proiektuak indartzeko aukera dugu.

Izan ere, kanpaina honetatik jasotako diru ekarpenei esker, AEK-k Erriberan euskalduntze-lanetan egiten duen ahalegina samurtu, eta ikasleendako beka-sistema indarrean jarri ahal izan du.

Joan den ikasturtean hegoaldean ari ziren ikasleek beka bat jaso zuten. Horrela, zonalde horretan egin behar duten esfortzu handia arindu ahal izan dugu.»

KEPA

Euskaraz Bizi eta Ikasi ekimeneko kidea



«Nafarroako jendarteak, euskalgintzak zein hezkuntza eragile ezberdinek egindako bultzadari esker, *Ley del Vasque* ren horman, pitzadura txiki bat zabaldu da. Hemendik aurrera, Nafarroa Erriberatik, Euskararen Herria, auzolanean josten jarraitzeko konpromiso geroz eta indartsuagoa daukagu.

Euskararen Herria, Euskararen herriek osatzen dute, anitza da. Horrelakoa izango da Hamarratz proiektua ere; Nafarroako zonalde diskriminatutik abiatuko den auzolana-artelana-jostelana.»

Ibilbide oparoa

Kanpainak 3 aste iraun baditu ere, bere lanketa hilabeteetan zehar egin da. Denboraldi horretan, une eta argazki eder asko sortu dira: Leku ezberdinetan

eta jende ezberdinarekin, horixe baita Errigora; mugimendu dinamikoa eta parte hartzailea. Hona hemen argazki horietako batzuk.



KANPAINAURREKO BATZARRAK

Iazko ikasturtearen balorazioa egin, eta aurtengoari ekiteko oinarriez aritu ginen. Horretarako, 3 asanblada antolatu ziren, eta herrialde ezberdinetatik etorritako ia 100 lagun elkartu ginen.



MUESTREN PRESTAKETA

Kanpainan zehar banaketa guneean erakusgai izan diren saskiak prestatzeko elkartu ziren hainbat herritan. Iaz 500 izan baziren, aurten 700 banaketa-gune izatera heldu da. Iaz baino 200 gune gehiago.



HERRIZ HERRIKAKO BILERAK

Herrietan, Aek, Sortzen, Ikastolen Elkarteak zein interesdun talde edo koadrila ezberdinekin bildu da Errigora. Talde hauek, beste hainbat herritarrekin batera, izan dira herrietan kanpaina lantzeko giltza.




3 PROTAGONISTEN DOKUMENTALAK

Aurten ahalegin berezia egin da, Nafarroa hegoaldeko herritarren bizipen errealek ezagutarazteko. Kanpainan zehar 3 dokumental eder ikusteko aukera izan dugu Tere, Imanol eta Angel-en eskutik. Hunkigarriak.



...ETA HASI ZEN AZKENEAN KANPAINA

Mahaian eserita, lortutako dirua jaso duten proiektuetako ordezkariak. Atzeko ilaran, ekoizleak. Izan ere, horixe izan da kanpaina honetako berrikuntza nagusietako bat; iazko ekoizle kopurua bikoiztu egin dela. Zenbat eta handiagoa eskaera, orduan eta handiagoa ekoizle kopurua.



SARE SOZIALETAN ERRIGORA DANTZAN

Iaz izugarria izan bazen sare sozialetako mugimendua, aurten muga guztiak gainditu ditu. #EUSKARARIpuzka traola, handik hona bueltaka ibili da gure twitterrak bustitzen.



ZERRENDAK ZABALTZEA HERRIETAN

Eskaera zerrendak, gune eta modu ezberdinetan zabaltu dira. Ikastetxe eta euskaltegietan, tabernetan... Baina baita kalean ere. Ze dotore dauden! Saskiko produktuak dastatzeko aukera eta guzti, gainera.



KUTXEN MUNTAKETA ABLITASEN

(Iazko argazkia da) Auzolan ariketa itzela izan da aurten ere, kutxen muntaketan. Oiartzuarrak, Leitzaarrak, Soralezukoak... herritar mordoak bildu da Ablitasen lanerako. Umorerik ez zen falta izan.



SASKIAK ETXEETARA BIDEAN

Behin kutxak prestatuta, furgonetak bete eta abanti! Zenbat esku, kutxak banatzeko. Zenbat gerriko min, holako pisuekin. Baina Gustuko lekuan aldaparik ez! (...) eta behin jabearen eskura helduta, ON EGIN!



«Errigora erreka txiki askotatik edanez sortzen den erreka handia da, ondoren, indarrez itsasoratzen dena»



Zein da zuen funtzioa Errigoran?

Errigorak badauka lan-talde nagusi bat, herrialde ezberdinetako jendeak parte hartzen duena. Lan talde hori hile eta erdian behin biltzen da eta dozena bat kidek osatzen dugu. Bertan, Errigoren norabidea eztabaidatu, erabakiak hartu eta lantzen ditugu. Azken batean, proiektu honen koordinazio eta dinamizazioaz arduratzen gara.

Baina Errigora ez da lan talde horretara mugatzen, oso oinarri zabala du...

Bai, bai. Errigora, harreman eta ekarpen askoren konfluentzia da. Erreka txiki askotatik edanda sortzen den erreka handia bezala.

Elikaduraren arloan, euskalgintza inguruan, komunikazio esparruan, sindikatuen munduan... inguru guztietan lantzen ditugu harremanak urtean zehar. Horien guztien ekarpenekin hartzen du forma Errigora proiektuak.

Baina hortik harago ere, Errigorak oso sare zabala du eta sare zabal horretan, inplikazio maila oso ezberdinetako parte hartzea dago; norbanakoena zein taldeena.

Udazkeneko saskiekin hasi zintzen. Gerora Errigoren jardura ere handituz joan dela esan daiteke.

Errigora Nafarroa hegoaldeko errealitateak bizi duen egoera berezituari ekarpen bat egiteko sortu zen; hain zuzen, nekazal ekoizpena sustatu eta euskalgintzari ekarpena egiteko. Helburu horrekin, udazkeneko saskien kanpaina, "...euskarari puzka", izan zen sortu genuen lehenengo dinamika. Lan neketsua izan zen,

baina oso emankorra eta ilusionagarria. Hain harrera ona zuela

“

Errigora Nafarroa hegoaldeko egoera berezituari ekarpen bat egiteko sortu zen; hain zuzen, nekazal ekoizpena sustatu eta euskalgintzari ekarpena egiteko.

ikusita, bestelako ideia batzuek ateratzen hasi ziren. Beti, Errigoren helburu eta filosofiari erantzunez, noski. Horrela hasi ginen, esaterako, "...eskutik eskura" dina-

mikarekin, hau da, olio bidoi eta kontserba loteen bide horrekin.

Zerk desberdintzen ditu ba "euskarari puzka" kanpaina eta "eskutik eskura" ildoak?

"...euskarari puzka" saskien kanpaina, Zazpiak Bat, Aek, Ikastolen Elkarte, Sortzen eta Errigorak elkarlanean lantzen dugun dinamika da. Nafarroa hegoaldeko produktuekin ahalik eta etxe gehienetara heldu nahi da, hortik ateratako diruarekin Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara ahalik eta ekarpen ekonomiko handiena egin ahal izateko. Auzolan ariketa erraldoi bat da, aste batzuek bada ere, Nafarroa hegoaldeko egoera erdiguenean jarri nahi duena.

Ostera, "...eskutik eskura" lote eta bidoiaren dinamika, saskien kanpainen ezagutu ditugun produktu eder horiek, gure eguneroko kontsumo ohituretara ekarri asmoz egiten den formulazio zehatz bat da. Helburua da, urruneko partez, geure produktuak izatea urte osoan zehar gure sukaldeetan. Otsailean, nahi beste olio bidoi eskatzeko aukera izaten da, maiatzen, berriz, kontserba loteak. Hauek, ekoizlearen

jatorrizko prezioan ekartzen dira. Nafarroa hegoaldeko ekoizpena sustatu eta gure produktuen kontsumoa erraztera datorren formula bat da.

Herritarrek ilusio handiz hartu duten proiektua da Errigora. Berritzailea izatea, estilo berezia... zer da hain erakargarri egiten duena?

Gure ustez, herritarren sentsibilitatea ikutzen duten elementu batzuk batzen ditu eta horrek bihurtzen du erakargarri proiektu hau. Nafarroako egoera, bertoko ekoizpena bultzatzea, euskara, herrigintza, auzolana... Elementu ezberdin horiek gainera, modu alai eta bizi batean lantzen dira eta herritarrek, zuzenean parte hartzeko aukera du. Proiektu honetan, herritarra bera da protagonista nagusia eta hori klabea da, gure ustez. Saskien muntaketa, ahoz ahoko propaganda, sare sozialen bidezko hedapena... Hori dena, herritarrek eurek egiten dute, eta ikusle pasiboak izan beharrean parte hartzaile aktiboak izateak ilusioa sortzen duela

“

Proiektu honetan, herritarra bera da protagonista nagusia eta hori klabea da.

Lan taldeko zenbait kide 2014ko Argia publikizitate saria jasotzen



bistakoa da.

Ikasgairan bat aterako zenuten ba esperientzia honetatik...

Argi ikusi duguna da, koadri-la bakar batek bihotza jartzea nahikoa izan daitekeela, proiektu handiak sortzeko. Are gehiago; Euskal Herrian herrigintzarako sekulako aukerak daudela eta, gainera, herritarrek horretarako gogoia dutela.

Baina etor gaitzen bukatu berri den kanpainara. Emaizak oso onak izan direla jakina da, baina nolakoa izan da herritarren parte hartzea oraingo honetan?

Jadanik, kanpaina aurretik antolatatu genituen 3 asanbladatan, ia 100 lagun batu ginen. 200 herritan landu da kanpaina. Azaroaren 22-23ko asteburuan, herrialde ezberdinetatik etorritako hamarnaka herritar bolondres izan zen Ablitasen muntaketa lanetan; eta zeresanik ez, propaganda, banaketa eta bestelakoetan parte hartu duen herritar mordo. 700 banaketa puntu baino gehiago egon dira Euskal Herri osoan zehar, eta banaketa-puntu horien atzean herritarrek daude. Parte hartze ezin hobea egon dela esango nuke, argazki bikaina, nire ustez.

Bukatze aldera, pertsonalki ze bizipen edo ekarpen sortarazten dizkizu Errigorak? Eta gainontzean, zer da Errigorako esperientziak egin dizuen ekarpen nagusia?

Pertsonalki, uste dut denoi ere bizipen edo ilusio handia sortzen digun zerbait dela. Badira momentu batzuk, lan asko egin behar dena. Batez ere, kanpainen buru belarri sartuta gaudenean. Baina herritarren erantzuna eta emaitzak ikusteak, sekulako asebetetasuna sortzen du. Gainera, oso lan giro ona eta ilusioa dira nagusi proiektu honetan, eta hori polita da. Herri honetzako ekarpen bat egiten ari zarela sentitzearen parekorik ez dago.

Horrez gain, ni behintzat, proiektu honetan egoteak Nafarroa hegoaldeko errealitatea hurbilago bizitzera eraman nau. Geure herritarren parte bat dela jakin arren, sarritan urrunetik bezala begiratu izan diodala uste dut. Eta proiektu honetan ibiltzeak bertako herritarrekin harreman zuzenean jarri nauenez, orain hurbilago sentitzen da guztia. Hori izugarri eskertzen dut, oso aberasgarria da niretzat.

Kanpaina hau amaitzen deneko, non jarri duzue iparra?

Tarte labur-labur bat, deskantsatzeko eta kanpaina honek utzitako fruitu ederrak dastatzeko hartuko dugu. Baina segituan, Otsaileko olio kanpaina begira jarriko gara. Ea aurten ere, gure etxeetako apalategiak, Nafarroa hegoaldeko bidioez betetzen ditugun. Horren ostean, berriz, maiatzean, kontserba loteen kanpaina lantzea izango da gure erronka. Baina momentuz, saskiko zainzuri eta piper ederrak dastatzeari ekingo diogu.



NEKANE GALPARSORO OTAEGI
42 URTE • TOLOSA

Errigora Nafarroako Ikastolei laguntzeko modu bat dela iruditzen zait eta bide batez bertako produktuak dastatzeko aukera ezin hobea.

Gainera, asko gustatzen zait auzolanean oinarritzen den antolakunde bat izatea. Gertuko harremana bilatzen du ekoizle, laguntzaile eta kontsumitzaileen arteko hartu emana sustatuz.

Egoera larrian dauden Ikastolak aurrera ateratzeko egiten den lan hau, etorkizunean gizarte euskaldun bat izateko eskubidearen aldarrikapena da, eta nire ustetan hori da Errigorak egiten duen ekarpen nagusia.



CASTILLO SUAREZ
38 URTE • ALTSASU

Sakanako Mankomunitateko langileen ordezkariok eskatu genuen Errigorako saskia gabonsari gisa jasotzea. Eskiera onartu eta 50 saski inguru banatzen dira gurean urtero.

Helburuari garrantzirik kendu nahi izan gabe, uste dut azpimarratu behar dela, kalitatezko produktuak direla. Izan ere, batzuetan ahaztu egiten zaigu Nafarroako lurra oso oparoak direla.

Saskia honen bidez, Euskal Herriko alde ezberdinetako jendea "lotu" egiten da: ekoizleak, laguntzaileak eta hartzaileak. Iruditzen zait herri mugimendu xume bat izanagatik lan komunikatibo izugarria —eta eredugarria— egiten dela.



komunikabide lagunen txokotik

LANDER ARBELAITZ MITXELENA (Argiako kazetaria)
29 URTE • DONOSTIA

Bereziki interesgarria iruditu zitzaigun komunikazio kanpaina nola planteatu zuen Errigorak, kalea eta sarea uztartuz; eta lortutako emaitzak, noski. Horri gehitu behar zaio, proiektu honek, besteak beste, euskalduntzea, elikadura burujabetza, herrigintza eta auzolana uztartzen dituela. Balore hauek, ARGIAtik lantzen ditugun baloreekin pare-parean datoz. Beraz, Publizitateko Argia saria ematea, Errigorari bultzadaxoa emateko modua iruditu zitzaigun; errekonozimendu publiko bat egitea.

Gainera, behetik gora eraikitako proiektua da, eta beraz, komunikazioa ere horrela egingo da. Herriz herri jendea Errigorako eskuorriak ilusioz banatzen ikusteak, saskia erosiz zer gauza handia egiten ari ginen entzutea... milaka pertsonarengana helduz zuzenean. Hori lortzea oso zaila da.

Horrez gain, aipatuko genuke, bideogintzan, esaterako, oso fin dabilela Errigora, eta helburua (saskiak saltzea) garrantzitsua bada ere, baloreei buruz gogoeta eragitea ere herrigintza da. Horrelako lan gehiago behar ditugu.

Argiako kideok Errigora bezalako proiektuen arrakastarekin asko pozten gara. Honelakoek erakusten dute, jende txiki askok, leku txikietan gauza txikiak eginez, mundua alda dezakegula.

Segi fuerte!



EKAIN MUÑOZ OÑATIBIA
35 URTE • DONOSTIA

Erriberan familia dut, gure aitona Alesbeskoa zen, eta ezagutzen dut euskarak inguru hartan bizi duen egoera.

Nire partetik behintzat, Erriberan euskaraz bizi nahi duen edonork egiten duen esfortzuari aitortza bat da hau. Bestalde, ortua dugunetik, gero eta estimu handiagoa diogu ekoizpen ez-industrialetatik datozen produktuei. Ildo horretan, ekoizle txikiak eta kontsumitzaileak zuzenean harremanetan jarzea oso erakargarria iruditzen zaigu kontsumitzaile bezala.



XAN MIXEL CECCON
57 URTE • UZTARITZ

AEK Uztaritzeko Gau Eskolako langilea naiz. Hemengo ikasleei aipatu nien iaz zuen ekimena, Nafarroako Hizkuntza Politika xeheki azalduz eta noski, hango ekoizpenak gorai patuz.

Saskia hartu nuen (eta hartuko) batez ere ekimen interesgarri eta ezohikoa iduritzen zitzaidalako. Erran nahi baita hango ekoizle eta euskalzaleak biltzea euskara eta, bide batez, ekonomia sustengatzeko asmoz. Ekimenaren funtsaz gain, ekoizpenen kalitatea ere aipatu zidaten ikasleek.



ASIER BIURRUN AJURIA
37 URTE • IRUÑEA

Herri bat dut amets, eta ametsak egi bihurtzeko norberak bere alea jarri behar du. Errigoraren saskia eskuratuz Nafarroa hegoaldeko ekoizleei laguntzen diegu eta, gainera, euskarari laguntza ekonomikoa ematen diegu.

Kontsumo ohiturek bere biziko garrantzia dute herri baten etorkizuna bermatzeko garaian. Ekimen honek euskaraz kontsumitzea ahalbidetzen dit, izan ere, euskaraz bizi nahi dut.



MARISA BARRENA LARRUZEA
63 URTE • DURANGO

Jatorriz baserritarra eta bihotzez euskaltzalea naiz. Keinu bakarrean euskararen eta elikadura burujabetzaren alde egiteko aukera ematen digu Errigorak, eta horrek eramaten nau saski hau hartzera, hain zuzen, Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari putz egin eta momentu berean, hango nekazariei laguntzeko. Berba baten esanda, *auzolana* da ekimen honetan gehien erakartzen nauena.



AMAIA URRUTIA
30 URTE • GASTEIZ

Euskal Herriko perspektiban lan egiten du Errigorak, eta lurraldeen arteko ezagutza, elkartasuna eta kohesioa josten laguntzen duela iruditzen zait. Horrexek bultzatu nau parte hartzera, auzolanaz, praktikotasunaz eta produktuen euren berezko erakargarritasunaz gain.

Hala ere, Errigoraren ekarpen nagusi bakarra hautatu behar banu, ilusioa pizteko duen ahalmena litzateke.

Mila esker, mila zorion

ANGEL ITURRI, TERE ROSANO eta IMANOL IBERO

Gutun honen bidez, kanpaina honetan parte hartu duzuenoi hitz batzuk zuzendu nahi dizkizuegu. Hitzak, zoriontzeko; hitzak, gure poza adierazteko; hitzak, gure esker ona erakusteko. Sekulakoa izan da kanpaina. Nafarroa hegoaldeko Euskal Herriko txoko galduenetaraino, bihotz bihotzez, zorionak eta mila esker!

365 egun ditu euskarak; baita gure baratzek ere. Gainontzeko egutegiak bezala, 365 zenbaki dituzte zonalde honetako egutegiak ere; eta horietan guztietan, gu-



tako bakoitzak, bere lekutik, aurre egin behar diegu errealitateari. Baina asteotako esperientzia eder honen ostean, zinez indartuta eta ilusioz beteta gaude bihurtik aurrera ere lanari ekiteko. Oibarko

mahastiak are mimo handiagoz zainduko ditugu. Gogotsuago arituko gara Arroniz inguruko piper eta zainzuriak latetan sartzen. Era berean, bultzada honekin adoretsetuago gaude Tuteran euskaraz bizitzen

jarraitzeko.

Hau guztia, ez babes eta elkartasun handia sentitu ditugulako bakarrik. Baita, geuk, geuretik, dakiguna eta daukaguna eskainiz parte hartu dugulako ere; Oibartik, Arroniztik, Tuteratik eta beste hainbat herritatik. Pozik jarri dugu, gure aldetik jarritakoa; baita pozik jaso ere, zuengandik jasotakoa. Bakoitzak, norbere neurrian eta norbere inguruan jarri dugu geure aletxoak. Denon ekarpenarekin, auzolanean, herria egiten ari gara!

Ederra da, jende eskuzabalez osatutako herri bateko kidea izatea. Ohore bat da, kostaldeko nafarrokin, Zuberokoekin, Arabar Errioxakoekin edo edonongoak izanda ere, zuekin, honelako une goxoak bizitzea.

Mila esker denoi, zoragarria izan da.